

itzalen distira
arrate egaña



n a r r a t i b a •

erein

ITZALEN DISTIRA

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespeneko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2022ko maiatzean

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Azaleko irudia:

Arrate Egaña

© Arrate Egaña

© EREIN. Donostia 2022

ISBN: 978-84-9109-822-5

L.G.: D 591-2022

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-posta: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

e-posta: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Arrate Egaña

ITZALEN DISTIRA



Uxue Razquini.
Markos Zapiaini.
Biek emandako laguntza eta adore guztiagatik.

MARQUEZ

Parke bateko bankuan eseri naiz. Ez nekien hemen banku bat jarri zutenik; egia esan, parke osoa ezezaguna egin zait. Ez dago gaizki. Barruan egon naizen bitartean, berdeguneek zementuari espazioa jan diote, tabernek izena aldatu dute, eta, okindegia zegoen lekuan, kultur etxe dotore bat jarri dute, itsasadarrari begira. Atzo, liburu-denda batean sartu nintzen, behinola han zegoen jatetxera sartzen ari nintzelakoan. Pareko zapata-denda itxi dute; gustuko nuen denda hura.

Kalean ibiltzea, itxurazko normaltasuna emanez, neketua da. Jende ezezagun askorekin gurutzatu naiz. Ezagunekin topo egitea zailagoa izaten da, ordea. Arnasarik gabe geratzen naiz, zer esan jakin gabe. Hemen inguruan ez dago inor. Ibaia, orain garbia, aurrean dut, isil bezain arrotz. Ur gardena darama, usain txarrik ez.

Lana bilatuko dut; aurrerago, baina. Lasai egon, astiro ibili; zereginak bata bestearen atzetik, txandaka. Ezin da kolpez pasatu ia ezer ez egitetik ia dena egitera.

Zamarreko sakeletan dauzkat eskuak. Sakela bakoitzean papertxo bat, helbide bi. Bata, lehengusuarena, Xebe lagunak «integratze bileran» eman zidana: Rue des Padoues, 31. Ahapeka hitz egin zidan: «Kepa Miarritzera etorri duk; lagun

baten etxean eman ziotek ostatu». Irrikan nago lehengusua ikusteko. Izebak esan zidan errudun sentitzen zela, gertatu zenagatik; ez dakit nola jakin zuen izebak, baina halaxe esan zidan. Nik Kepari ez diot ezer egotziko; ez dut nahi berarekin mintzatu baizik, nola joan zaion jakin, non ibili den urte hauetan, eta nik kartzelan emandako urteen berri eman, azkeneko bi urteak gogoan; zehazki, Palentziako La Moralejan igarotakoak. Kontatzeko beharra dut, eta Kepari guztia konta diezaioket, berak niri moduan, lehen egiten genuen bezala. Kontatu, entzun eta elkar ulertu.

Marquezen helbidea gordetzen duen papera daukat beste sakelan. Los Peregrinos kalea, 19. Cuchok kartzelatik deitu zidan lortu berriak zituen datuak jakinarazteko, eta erosketen libretan apuntatu nituen. Jatorra, Cucho, kolonbiarra; barruan egin nuen lagun. «*Dale lo suyo, mi pana, por enzo-rrarse*». Barre egin genuen telefonoz.

Esku izerdituetan, paperak bigundu zaizkit. Bat atera dut; miatu, eta poltsikora berriro; ondoren, bestea. Letra bakan batzuk, zenbakiren bat, besterik ez, eta, aldi berean, hori baino askoz gehiago ere bai. Kanpoan nago, aukera ororen hormarik gabeko espazio zabalean, eta, nire gainean, kartzelako patioko zeru bera, hodeiek zirriborratua orain. Nolanahi ere, aurre egin beharreko kontua udako ekaitzaren harria bezain bortitz erori zitzaidan kanpoan oin bat ipini bezain fite.

Ezintasun horretaz ere ez nintzen mintzatu «integratze bileran», kaleak ematen duen bertigoaz, jendeak sortzen didan izuaz, emaztearen ohiturek eragindako harriduraz, Lide alabatxoaren ondoan jasaten dudan lazturaz. Erru erraldoi baten eragile sentiarazten nau Lidek. Min ematen dit haren

begirada urrun bezain zurrinak. «Printzesa» deitzen dio amak, elurretako erregina da niretzat, margoz betetako koardernoa besapean beti, ikuskari baten antzera. Enekorekin errazagoa izan da; pozez hartu nau hasieratik. Txikiegia da mutikoa, ziur aski, kontu garrantzitsuez ohartzeko. Eskolan daude orain biak, bankuan eserita ni, deliberatzen, egiteko dagoena egiteko neure burua prestatzen.

«Integratze bileran», pentsatu dut, zelako izena. Kartzelan sartu aurretik, ez nenbilen oso integratuta, eta ez dut uste irten ondoren lortuko dudarik. «Etxean bezala sentituko haiz txokoko bileran», esan zidan Xebek, «lagunez lepo egongo duk». Baina txokoan etxean bezain deseroso sentitu nintzen. Ez da lagunaren arazoa, ezta etxekoena ere, neurea baizik. Deitorerik ez, ordea; ongi etorri derrigorrezko pozari.

«Elkartu garen ia guztiok izan diagu zer kontatua», zioen Xebek, nire korapiloa askatzen laguntzeko asmoz, «lasai hitz egin dezakek». «Nik hango gorabeherekin amets egiten dut oraindik», aitortu zuen Koldo batek bileran, «ezin ahaztu». Eta zehatz-mehatz libratu zuen pasadizo ikaragarri batzuen inguruko informazioa. Arantxak ere dena oroitzen zuen, nahiz eta gertatu zitzaiona axaletik azaldu. Okerrago kasik, imajinarioari eragin beharra.

«Kolperen bat, eta irainak», esan zuen, txanda heldu zitzaionean, gizon ilehori batek. Ez nuen ezagutzen. Gorri deitzen zioten. Nik, irekitako bidea baliaturik, errepikatu egin nuen: «Ni, berdintsu; kolpeak, irainak».

Hitz guztiak itzaliz joan ziren, abestiaren ahalak zokorata: «... ateratzeko beldur da, beldur eszenikoa, aspaldi antzetzu ez duen obra honetan...». Ez nuen taldea ezagutzen,

baina gustuko nuen. Berbetan botatakoaren errautsa esko-
batzeko indarra zuen emakumearen ahotsak.

«Lanarena zer moduz?», galdetu zidan Xebek. Lide erregina,
koadernotik burua altxatu, eta adi geratu zen, nire erantzu-
naren zain. «Non bilatu ere ez zakiat», xuxurlatu nion lagunari
belarrira, neskatzak entzun ez zezan. Burua papererantz jaitsi
zuen. «Entzun diat umeen jantokian sukaldari bila dabil-
tzala», ozenki jakinarazi zidan lagunak. Lide nuen buruan,
haatik. Hain da azkarra eta polita nire txikia. Kartzelatik
kanpo izan zen egina, bestea ez bezala. Alabaren hotza pairatu
arte ez dut jakin benetan zenbat maite dudan. «Hi ona hin-
tzen horretan, ezta?», Xebek, oraindik ere. «Zertan? Sukaldean?
Txarra ez, behintzat. Ekarri dugun sagar-tarta nik egindakoa
duk», harrotu nintzen. «Mundiala zagok, konpai».

Altxatu naiz, bankuan ipurdia gogor geratu zait eta. An-
dre bat bere txakurtxoarekin hitz egiten ari da, belardi batean;
ondoren, maskotaren kaka jaso, eta biak aldendu dira. Abes-
tiak zioen negua joana dela, baina orain eta hemen negua
etorkizun da. La Moralejako patioko kantoietan, orbela bil-
duko da. Cucho ez nirekin baizik beste batekin ibiliko da,
krax-krax, hostoen gainean.

Eskuak poltsikoetatik atera ditut, zamarra lotzeko, haize
fina harrotu baita. Emazteari galdetuko diot norena den
kanta.

—Ezta pentsatu ere!

Malenek tipula moztetari utzi dio. Haren hazpegiak samina
erakusten du, eta mesfidantza. Lide, irri galduko neska, guri

tinko so, lapitza eskuan, artean airean, koadernoko orrialdean pausatzeaz.

—Zer nahi duzu, berriro zulora, ala?

—Ez hasi, mesedez.

Bai hasi eta bai bukatu. Duela bost urtekoa airatu du: Kepari leporatzen dio sasian zebilenean gure etxean gordetzea. Lau urte espetxean gau madarikatu haren erruz. Hura salbatu eta ni barrura. Negozio ederra. Amak, berdintsu pentsatu arren, ez du inoiz horren gordinki esaten, iloba baitu Kepa.

—Zu ez zaude ondo. Terapia egin beharko zenuke.

—Orain?

—Buru argitzeko, inoiz ez da berandu.

Orain?, jarraitzen dut neure buruari galdezka. Beharbada, hasierako egunetan, bai, dena handiegia zelarik, desproporzionatua, agorafobikoa. Eguzkiak kiskaltzen ninduen eta euriak garezurra zulatzen zidan. Solasak isilka heltzen zitzaizkidan, distantzia erabat inoiz zeharkatzeke, eta familia zonbi-talde bat iruditzen zitzaidan. Orain, bai, larderiartzen nau barne-barneko ahots batek Maleni men eginez; orain, hain justu, Marquez berragertu denean, eta horrexegatik hain zuzen.

—Psikologia ikasi nuen nik —gogorarazi diet emazteari eta barneko ahotsari.

—Eta?

Erantzun ona. Lideren marrazkian jarri dut arreta, elkar-irizketa luze eta deserosoari ihesi.

—Gustatu al zaizkizu margoak, Lide?

Lidek bere begi izoztuez begiratu dit, isilik. Ez du erantzuteko astirik.

—Behar ez dena ez erosi —ihardetsi du Malenek—. Bazituen horrelako pinturak.

Bakardadeari ez diola beldur, Malenek, baina bi ume ditugula, ez ahazteko, arren. Nire gogoak Lideren ondoan jarraitzen du. Ez ote du inoiz barre egiten? Beste ume askok egiten duten moduan behinik behin, itxurak egiteko. Alabastrozko neska ederra, zuria, hotza. Noiz leunduko dira gure arteko ertz urragarriak? Ez nauela ulertzen, dio Malenek, eta malkoek irrist egiten diote, tipula era zatarrean txikitzeagatik edo.

—Ekarri —eskatu diot, azkenean, ganibeta hartuz, kalamatrika amai dezan—, neuk egingo dut patata-tortilla. Zuri txarto ateratzen zaizu.

Irri triste bat egin du, begiak mahukaz sikatuz.

—Bitartean, umeak bainatuko ditut.

Tortilla primeran gelditu da, eta di-da jan dugu. Txikiak oheratu, eta balkoian paratu gara une batez, beheko plazari begira. Handia edo luxuzkoa izan ez arren, etxe polita da gurea; arbolak dauzkagu leihopean, eta, harago, San Markos gotorlekuko tontorra ere ikus daiteke. Papertxoak zamarreko sakelari gelditu dira; buruz dakit zer dakarten: bata, Los Peregrinos kalea, 19; besteak, Rue des Padoues, 31. Kolkua erretzen didaten bi txingar.

—Bihar Palentziara joango naiz, agiriak egitera.

—Bai, esan zenidan. Azkeneko aldia izatea espero dut.

—Azkenekoa izango da.

Musu luze gozoa eman dit Malenek. Gainerakoa ahazturik, laztanak hasi dira; balkoian aurrena, ohean ondoren. «*Tu recuerdo sigue aquí*» abestiaren hitzek zirrikitua bilatzen

dute, desira eta nazka nahastuz orainaldian, «*rompe fuerte sobre mí*» desioari, plazerari erritmoa emanaz, «*y cae tan fuerte que me quema hasta la piel*», hasperenak noten artean tartekatzen, lai lo lai, lo le lo... azkeneko bultzadaz batera eten arte.

Eta, ondoren, berriro irten naiz balkoira, udazkeneko aire epelera.

Autoa itsaspekoa da. Itogarria den guztiaz babesten nau. Kalea, jendea, balizko lana, Marquez. Dena burbuila honetatik at geratzen da. Udazkeneko egun argitsu bat heltzen zait leihoetatik.

«Ez dakit zergatik itzuli behar duzun Palentziara», tematu da Malen ni irten aurretik, berezko sorgin-intuizioari jarraituz. «Nire bizitzaren bi urte gelditu dira hantxe», erantzun diot, «eta paper batzuk».

Errepidea, hiru ordu baino gehiago autoan, kalkuluak egiteko beta. Nolanahi ere, ez naiz heldu Palentziako kanpoaldera baino. Zuhaitzi eder batez eta etxe baxuz osaturiko barruti batean sartu naiz, GPSak gidatuta. Etxe arruntak, zuriak edo adreiluzkoak. Los Peregrinos kalea hartu, eta 19. zenbakia aurkitu dut. Auzo kaxkarra da, kale huts bat eguzkipean. Mendirik ez hodeiertzean, lantoki eskas bateko teilatu horzduna baino ez. Erdigunea ezagutu nuen; ederra da. Alde honetik herrixka baten itxura du, herrixka itsusi batena.

Ertz garbi luze batean aparkatu dut autoa, taberna ziztrin baten ondoan. Beroak zigortu arren, ez dut itsaspekoa utziko. Bostak dira. Marquez honezkero irtengo zen presondegitik.

Irratia jartzean, hatzak dardarka ditudala ohartu naiz. Ez dut entzuten.

Logroñon urte bi eman nituen, eta Palentzian azkeneko biak. Bi urte haietako gertaera nagusia isiltasunak irentsi zuen. Norbaiti kontatu beharko diot, erraiak ustelduko zaizkit bestela. Ez dakit, ordea; ez naiz terapeutez aski fio. Hurbileko norbaitek entzungo dit, beharbada Kepak, edo Mainerrek.

Lehendabiziko gauarekin hasiko naiz, okerrera izan zen eta.

Gaueko ordu txikietan esnatu ninduen Olvido Marina polizia andreak. Ez larritzeko esan zidan, eta berarekin joateko, txorakeriarik egiteke. Ez larritzeko, bai, ederto, baina zer gerta ere latexezko eskularruak zeuzkan ipinita. Marina handia zen, oso, ni baino altuagoa, eta zabala, horma bat. Gerrian zintzilik zeraman borrarri erreparatu nion. «Txorakeriarik gabe esan dizut», errepikatu zuen, nire begiradaz konturatuta. Bisean bisekoak egiteko gela batera eraman ninduen, ukondotik helduta. Moralejara iritsi berria izaki, ez nintzen Malenekin han egona, baina antzekoak ziren denak. Ikarak astindu ninduen, loa erabat ezabatu arte. Arropa erantzeko agindu zidan. Eta ez larritzeko, berriro. Hirugarren aldiz.

Preso-pijama burutik eranzten lagundu zidan; aulki baten gainean utzi zuen. Ez zuen argia piztu, eta, irten zenean, han gelditu nintzen, galtzontzillotan, ohe ertzean eserita. Goialdean zegoen leiho barrotedun batetik, izarrek ki-ku ziharduten, eta ilargiaren puska batek zilarrezko argia isurtzen zuen. Ilunean, nire gorputz zuriak distira egiten zuen. Ohazala

ezin itsusiagoa zela otu zitzaidan, hortentsia urdin haiekin, eta latza. Paretan, zurezko gurutze bat. Harago, nire arropari eusten zion aulkia, eta komun lauzatua txokoan: konketa eta zuloa.

Marquezekin batera itzuli zen Olvido Marina. Marquez, sekzioburua izan arren, ez nuen inoiz gertu eduki; sarritan entzun nion hizketan, hori bai, ozenki hitz egiten baitzuen, eta barre ere algaraka. Bi emakume haiek salbu, gainerako funtzionarioak gizonak ziren.

Berrogei urte inguru izango zituzten bi andreek, eta uniforme berdexka zeramaten jantzita. Marquezek gehiago betetzen zuen, potolo baitzegoen; bazirudien titi partean alkandoraren botoiak lehertuko zitzaizkiola. Marinak, kasete txiki bat mahai gainean ipini, eta *play* sakatu zuen. Neska andaluziar batek abesteari ekin zion. Etzateko agindu zidan Marquezek, larderiaz. Zer egin behar zidaten galdetu nien, ataka hartan nintzela ezin sinetsirik, eta Marquezek isiltzeko, ez banuen benetan gaizki pasatu nahi.

Keinu bati ihardetsiz, Marinak, niregana heldu, bere esku babestuaz zakila atera, eta eragin zion. Gora eta behera. Leunki. Latexaren kontaktuak hozkia eman zidan. Sendo heldu zidan sorbaldatik, atzera egin ez nezan. Bitartean, Marquezek arropa erantzi zuen: jaka, alkandora, gerrikoa, galtzak, titi-zorroa. Tripotxa eroria haragi koloreko kulero erraldoiaren gainetik zintzilik geratu zitzaion. Marinak han jarraitzen zuen, erritmoari zorrozki eutsiz, lodi eta tente jarri zitzaidan arte. Bere legeak ditu gorputzak, borondatearentzat helezi-nak, jakina da; nolana ere, zeharo bitxia zitzaidan sententzia, aurretik sekula bizi gabekoa. Nazka plazerari gailendu

zitzaion, nazkari beldurra, beldurrari plazera, plazerari nazka. Eta horrela.

Argi metalikoak Marinaren gorputz lodia profilatu zuen. Titi mardulak dilindan, sabeleko zelulitisak aluaren itzala estaltzen zion. Kuleroa hatz puntan biraka, jolasean, *stripper* batek egingo lukeen gisan. Boteroren koadroak etorri zitzaizkidan burura, kolorez eta graziaz gabetuak alabaina. Marinak eskua erretiratu zuen, nire zakila basamortuko palmondo bakarraren antzera utzita, zut eta oinazetsu, eta gelako itzaltetan ezkutatu zen, diskrezioz. Marquez dorpeki etzan zitzaidan ondoan, eta lepoa musukatu zidan, sorbalda, titixka bat, bestea. Gainetik kentzeko keinua egin nuen. Galdetu zidan ea nahiago ote nuen lotu nintzan. Amore eman, eta erlaxatzen saiatu nintzen. Horixe aholkatzen dute.

Musu luze bat eman zidan ezpainenetan; egur zati bat musukatzea izan zen. Lauhazka jarri zitzaidan gainean. Titiek, nire lepoaren alboetan, belarriak ferekatzen zizkidaten, aurrera eta atzera; aldi berean, nire belaun baten kontra masturbatzen zen. Gogor igurtzi zuen neurritz gaineko bere gorputz osoa nirearen kontra. Mingaina belarriko zulotik sartu zidan. Hatsanka zegoen. Halaber ni, noizean behin hozkirri batek soina elektrifikatzen bazidan ere. Musikan murgildu nintzen: «*Tu recuerdo sigue aquí, ay, como un aguacero...*». Begiak itxi nituen. Malenen oroitzapena ekarri nuen, haren ile fina, beira-alez apaindutako txirikorda mehea, aldaka hezurtsua, titi txiki tenteak, ahots sakon eztea. Zaila, ordea.

Marquezek, nire zakila hartu, eta bere toles bigun gizenen artean ibili zuen, gordean betiere. Haragia edonon, nire presentzia bereganatzen zuelarik zirrikitu guztiak estaltzen zituen

adipositateak, plastilina urtuaren antzera. Hasperenak garra bilakaturik zen korritu. Orobat ni, hazia supituki goitika isuririk.

Bortizki bereizi zen, nire zakila zurtz utzirik, eta izoztuta. Nazka areagotu zitzaidan gure isurien nahasketaren hotza sabelean sentitzean, hankartean, lepoan. Izara ere bustita zegoen. Artean, haren izerdiaren usaina suma nezakeen, haren ilearena, listuarena, aluarena; indar handiz heltzen zitzaidan ñabardura eta xehetasun bakoitza. Janzten ari zen, ni ohean utzita.

—*Té has portado, chaval.*

Gerrikoa lotu, eta, gero, txalo bat eman zidan aurpegian, era paternalistan. «*Me quema hasta la piel*», zioen abestiak, «*lai lo lai, lo le lo...*». Ohean eseri nintzen. Zorabiatuta nengoen. «*Sé que te tengo que olvidar...*». Marquezek alde egin zuen, bestelako agurrik gabe.

Marina ezerezetik agertu zen, toalla bat zekarrela eskuan.

—*Lávate si quieres.*

Musika isilarazi zuen, baina ez zuen argirik piztu. Zorionez.

Oinazetuak nituen giharrak. Nola edo hala konketaraino heldu, garbitu, eta jantzi egin nintzen. Marinarekin batera itzuli nintzen ziegara. Oka egiteko gogoz nintzen, baina ez nuen egin, izugarri kostatzen baitzait. Edozertarako prestatu ninduten atxilotu nindutenean; hau eta hura egingo dizute, gaztigatu zidaten, egizu hauxe, esazu bestea. Gertatuaz, hala ere, inork ez zidan ohartarazi. Zer egin behar nuen? Zer esan? Zer pentsatu? Zer sentitu? Kontzientzia pausan ipini nuen, burua hutsik. Emoziorik ez, gogoetarik ere ez.

AURKIBIDEA

MARQUEZ	9
ORDEZKOAREN TEORIA	27
NORENA DA OHE HAU?	39
NIGAN BIZI DEN BESTE HORI	57
ITZALAK	75
LOLITAREN AMA	91
'FINAL DESTINATION'	115
'MERCY' EMAN	135